

ARIKETAK

1 TESTUA OSATU

Txoritxiki izeneko abesbatzak Gabonetako loteriarako dezimoak erosi ditu; denak ere 99.999 zenbakikoak. Diru premian dagoenez, partizipazio-txartelak ateratzea pentsatu du. Txartel bakoitzak, guztira, 5na euro balio du: 4 euro jokaturakoak + euro bat laguntza. Osatu ezazu partizipazio-txartel hau, 6. orrian esandakoari jarraiki.

txoritxiki abesbatza	TXORITXIKI Saltsamendi 11, 3. Tel. 948 33 33 33 Gaztibia
GABONETAKO LOTERIA 99.999 2002ko abenduaren 22an zozketatuko den Loteria. Jokatutakoa 4 € Laguntza 1 € Guztira 5 € Txartela: 0251 Eroslearen izena:	KO LOTERIA Zenbakia: 99.999 Gor..... (sinadura) Joka.....: 4 € / Laguntza: Guztira 5 € Txartela: 0251 Saria jasotzeko epea: 3 hilabete. Urratutako txartelak edo zuzendutakoak ez du balio... izango.
I R A G A R K I A	

2 BERRI IDATZI ESALDIOK, ZALANTZA-DANTZA LIBURUXKAKO AHOLKUEN ARABERA

1. Haren herriko jaietan, joko, dantza, erromeria **eta abar luze bat** egin ohi dute.

2. Gutuna jaso dut eta horregatik, **honezker**o, badakit isuna ordaindu beharko dudala.

3. Lanpostu horretarako, frantsesa eta ingelesa **ezagutu** behar dira.

4. Agiri hori administrazio guztietan aurkituko duzu, Foru Aldundian **ezik**.

5. Hirugarren hizkuntza eskakizuna prestatzeko **azterketa-frogak** eskatu dizkiot irakasleari.

6. Administrazio langileen **gehiengoak** bat egin du sindikatuen proposamenarekin.

7. Biharko bileran 30 **orritako** txostena aztertu eta eztabaidatu behar dugu.

8. Aurtengo lan-hitzarmena dela-eta, zuzendaritzak **elkarrizketak mantenduko** ditu sindikatuetako ordezkariekin.

A R I K E T A K

9. Nekagarria bada ere, nire ustez **pena merezi du** atzerriko hizkuntzak **ikasteak**.

10. Atzoko bilerara udaleko ordezkari **modura** joan zen.

11. Behar diren baldintzak betetzen ez dituela-eta, udalak **moztu** egin ditu hari ematen zizkion diru-laguntzak.

12. Udaletxeko eraberritze lanak hasi eta bukatu zituzten, hura **oraindik** alkate zela.

13. Kontrakoa pentsatu arren, **posible da** epaileen erabakiak dena bertan behera uztea.

14. Erraz konpontzen ditugu etxeko lanen kontuak, ni lanera sartu bezain laster bera **irtetzen** baita.

15. Zuzendaritzak ezer esaten ez badu, haren iritzia aldekoa dela **ulertuko da**.



ZUZENA EDO EGOKIENA AUKERATU, ZALANTZA-DANTZA LIBURUXKAKO AHOLKUEN ARABERA

1. a) Sei seme-alabei ahoa betetzen nahiko lan izan zuten garai batean gurasoek, baina, ez zegoen negar gehiegi kontatzeko **aitzakirik**.
b) Sei seme-alabei ahoa betetzen nahiko lan izan zuten garai batean gurasoek, baina, ez zegoen negar gehiegi kontatzeko **aitzakiarik**.
2. a) EBk **aditzera eman** du tabakoaren publizitatea debekatzeko legea onartu duela.
b) EBk **jakitera eman** du tabakoaren publizitatea debekatzeko legea onartu duela.
c) EBk **ezagutzera eman** du tabakoaren publizitatea debekatzeko legea onartu duela.
3. a) Gabonetan, amonarekin suaren **aitzinean** eseri eta **aintzinako** kantak abesten zizkigun.
b) Gabonetan, amonarekin suaren **aitzinean** eseri eta **aintzinako** kantak abesten zizkigun.
c) Gabonetan, amonarekin suaren **aitzinean** eseri eta **aintzinako** kantak abesten zizkigun.
4. a) Lanpostu horretara aurkezteko ingelesez jakin behar da, **nahitaez**.
b) Lanpostu horretara aurkezteko ingelesez jakin behar da, **nahi eta nahi ez**.
c) Lanpostu horretara aurkezteko ingelesez jakin behar da, **nahitanahiez**.
5. a) Prestige petroliontzia eragin dituen kalteen ondorioz, **ehundaka** lanpostu galduko dira.
b) Prestige petroliontzia eragin dituen kalteen ondorioz, **ehunka** lanpostu galduko dira.
6. a) **Gustura** joango nintzateke datorren larunbateko afarira, baina ezin izango dut.
b) **Gustora** joango nintzateke datorren larunbateko afarira, baina ezin izango dut.
7. a) Hogei urte igaro ondoren, Bergarako Aranzadi ikastolan mila haur aritzen dira **gutxi-gorabehera**.
b) Hogei urte igaro ondoren, Bergarako Aranzadi ikastolan mila haur aritzen dira **gutxi gora behera**.
c) Hogei urte igaro ondoren, Bergarako Aranzadi ikastolan mila haur aritzen dira **gutxi gorabehera**.
d) Hogei urte igaro ondoren, Bergarako Aranzadi ikastolan mila haur aritzen dira **gutxi gora-behera**.
8. a) Gure lanposturako nahitaezkoa da hirugarren **hizkuntza-eskakizuna** ateratzea.
b) Gure lanposturako nahitaezkoa da hirugarren **hizkuntz-eskakizuna** ateratzea.
c) Gure lanposturako nahitaezkoa da hirugarren **hizkuntza eskakizuna** ateratzea.

9. a) Dagoeneko galdu dut gure politikariengan neukan **konfidantza**.
b) Dagoeneko galdu dut gure politikariengan neukan **konfiantza**.
10. a) Atzo nagusia etorri eta lana **lehenbailehen** egiteko agindu zigun.
b) Atzo nagusia etorri eta lana **lehenbailehen** egiteko agindu zigun.
c) Atzo nagusia etorri eta lana **lehen bait lehen** egiteko agindu zigun.
d) Atzo nagusia etorri eta lana **lehenbait lehen** egiteko agindu zigun.
11. a) Gabonetako loteria jokatu eta **launa mila** euro irabazi genituen.
b) Gabonetako loteria jokatu eta **lau milana** euro irabazi genituen.
12. a) Gaur egun, **orohar**, adineko jendea bazterturik bizi da gizartean.
b) Gaur egun, **oro har**, adineko jendea bazterturik bizi da gizartean.

4

HIZTEGI BATUA

Euskaltzaindia hasia da Hiztegi Batua-ren bigarren orrazketa egiten. Hona hemen sarrera berrien gaineko hainbat ariketa:

1. a) **Aidanez**, leku askotan bizitzak ez du asko balio.
b) **Agidanez**, leku askotan bizitzak ez du asko balio.
2. a) Aurtengo udarako **xake** txapelketa, futbol torneoak eta txirindulari lasterketak antolatu dira.
b) Aurtengo udarako **ajedrez** txapelketa, futbol torneoak eta txirindulari lasterketak antolatu dira.
3. a) **Akanpatu** nahi baduzu, eska iezaiozu baimena lurraren jabeari edota dagokion Udalari.
b) **Kanpatu** nahi baduzu, eska iezaiozu baimena lurraren jabeari edota dagokion Udalari.
4. a) Iparraldean **akanpada** librea debekatuta dago, baina batzuk egin egiten dute, lurraren jabeari baimena eskatu ondoren.
b) Iparraldean **kanpaldi** librea debekatuta dago, baina batzuk egin egiten dute, lurraren jabeari baimena eskatu ondoren.
5. a) **Egiaztagiri** horiek aurkezten ez badira ez da atal honengatik puntuaziorik lortuko.
b) **Akreditazio** horiek aurkezten ez badira ez da atal honengatik puntuaziorik lortuko.
6. a) **Eguneratze** hori egiteko ondokoa hartuko da kontuan: ekonomiaren eragileek edo bestelakoek jasaten duten bilakaera
b) **Aktualizazio** hori egiteko ondokoa hartuko da kontuan: ekonomiaren eragileek edo bestelakoek jasaten duten bilakaera
7. a) Kontuan hartu behar dugu, erradioaktibitatearen efektuak **akumulatu** egiten direla, eta erradioaktibitate horrek urteetan eta mendeetan zehar iraunen duela.
b) Kontuan hartu behar dugu, erradioaktibitatearen efektuak **metatu** egiten direla, eta erradioaktibitate horrek urteetan eta mendeetan zehar iraunen duela.
8. a) Galdakaoko Julen Gabiriak irabazi zuen sari nagusia. Angeluko Ur Apalategiri sari edo **akzesit** berezia eman zioten.
b) Galdakaoko Julen Gabiriak irabazi zuen sari nagusia. Angeluko Ur Apalategiri sari edo **acesit** berezia eman zioten.
9. a) Ez dut uste gustatuko zifzaionik –erantzun zion Txabik, neskamea etxetik oihuka ateratzen zen bitartean–; eta orain jan, mutilak, jan; **albondiga** bat bera ere ez dadila geratu kazolan.
b) Ez dut uste gustatuko zifzaionik –erantzun zion Txabik, neskamea etxetik oihuka ateratzen zen bitartean–; eta orain jan, mutilak, jan; **(haragi) bola** bat bera ere ez dadila geratu kazolan.
10. a) Gizakia ez da gauzen ezaguera hutsarekin konformatzen; existitzen edo existitu denaren gain **aktuatu** egin nahi luke, bere errealitatea eraldatu eta aurrerantz proiektatu.
b) Gizakia ez da gauzen ezaguera hutsarekin konformatzen; existitzen edo existitu denaren gain **jardun** egin nahi luke, bere errealitatea eraldatu eta aurrerantz proiektatu.
c) Gizakia ez da gauzen ezaguera hutsarekin konformatzen; existitzen edo existitu denaren gain **jokatu** egin nahi luke, bere errealitatea eraldatu eta aurrerantz proiektatu.

SOLUZIOAK

1 Testua osatu

txoritxiki abesbatza TXORITXIKI abesbatza Saltsamendi 11, 3. Tel. 948 33 33 33 Gaztibia

GABONETAKO LOTERIA

99.999

Zenbakia: **99.999**

2002ko abenduaren 22an zozketatuko den Loteria.

Jokatutakoa 4 €
Laguntza 1 €
Guztira 5 €

Txartela: 0251
Eroslearen izena:

Zenbaki horretan, agiridunak **5 €** jokatzen ditu 2002ko abenduaren 22an Madrilen zozketatuko den Loteria Nazionalan.

Jokatutakoa: 4 € / Laguntza: 1 €
Guztira 5 €

Gordailuzaina (sinadura)

Txartela: 0251
Saria jasotzeko epea: 3 hilabete. Urratutako txartelak edo zuzendutakoak ez du baliorik izango.

I R A G A R K I A

2 BERRIZ IDATZI ESALDIOK, ZALANTZA-DANTZA LIBURUXKAKO AHOLKUEN ARABERA

1. Haren herriko jaietan, joko, dantza, erromeria **eta abar** egin ohi dute.
2. Gutuna jaso dut eta horregatik, **dagoeneko**, badakit isuna ordaindu beharko dudala.
3. Lanpostu horretarako, frantsesa eta ingelesa **jakin** behar dira.
4. Agiri hori administrazio guztietan aurkituko duzu, Foru Aldundian **izan ezik**.
5. Hirugarren hizkuntza eskakizuna prestatzeko **azterketa-probak** eskatu dizkiot irakasleari.
6. Administrazio langile **gehienek** bat egin dute sindikatuen proposamenarekin.
7. Biharko bileran **30 orriko** txostena aztertu eta eztabaidatu behar dugu.
8. Aurtengo lan-hitzarmena dela-eta, zuzendaritzak **elkarrizketak izango/gingo** ditu sindikatuetako ordezkariekin.
9. Nekagarria bada ere, nire ustez **merezi du** atzerriko hizkuntzak **ikastea**.
10. Atzoko bilerara udaleko ordezkari joan zen.
11. Behar diren baldintzak betetzen ez dituela-eta, udalak **eten egin ditu** hari ematen zizkion diru-laguntzak.
12. Udaletxeko eraberritze lanak hasi eta bukatu zituzten, hura **artean** alkate zela.
13. Kontrakoa pentsatu arren, **baliteke/litekeena da** epaileen erabakiak dena bertan behera uztea.
14. Erraz konpontzen ditugu etxeko lanen kontuak, ni lanera sartu bezain laster bera **irteten** baita.
15. Zuzendaritzak ezer esaten ez badu, haren iritzia aldekotzat joko da.

3 ZUZENA EDO EGOKIENA AUKERATU, ZALANTZA-DANTZA LIBURUXKAKO AHOLKUEN ARABERA

Aukera bat edo bi zuzentzat ematen bada, besteak ez dira euskara batuan onartzen. Aldiz, aukera bat HOBESTEN bada, bestea ere onartzen da, baina maila apalago batean.

- | | |
|------------|------------|
| 1. b | 7. c |
| 2. Hobe a | 8. a eta c |
| 3. b | 9. b |
| 4. a eta b | 10. b |
| 5. b | 11. a |
| 6. a | 12. b |

4 HIZTEGI BATUA

- | | |
|------|-------------|
| 1. b | 6. a |
| 2. a | 7. b |
| 3. b | 8. b |
| 4. b | 9. b |
| 5. a | 10. b eta c |